

## Sar dadila kalabazan

Zeinek ez ditu gustuko ipuinak? Nik behintzat izugarri maite ditut. Zuek ez? Umekeriak direla pentsatzen duen horri gomendio bat: Irungo liburutegiak hilabetean behin, ostegunetan, antolatzen dituen helduentzako ipuin kontalariak. Baliatu beharreko aukera iruditzen zait, gutxitan topa dezakeguna. Bertaratzeak lotsa ematen dionari beste proposamen bat: Ojos de aguja liburua, ipuin laburren antologia bat.

Hala ere, txikitan guztioi kontatu dizkiguten ipuin horien inguruan pentsatzen jarrita, badaude gauza kuriosoak. Adibidez, ez al da gore xamarra norbaiten amona jaten duen otso baten istorioa entzutea lokartu aurretik amets goxoak izateko? Gero esango dute hau eta hora gure belaunaldiaren inguruan, baina inork ez dio erreparatzen izan dugun haurtzaro gogorrari. Izañ ere, ipuin horiek abesti batez lagunduta joaten ziren sarri: zakur handi bat etorriko da zuk ez badezu egiten lo. Egia esan, ez dakit nola ginen begiak ixteko gauza. Nola ez ginen ba ibiliko gero ohearen azpian begira?

Ipuinek normalean irakaspen bat izaten dute oinarri. Txanogorritxuren kasuan, agian, ez da hain nabaria. Akaso, basotik goazela otso batekin topo egin eta beste bide bat hartzeko esaten badigu kasurik ez egitea. Baina badaude mezu argiagoa dutenak. Txitxarra eta txingurriaren kasua litzateke horietako bat. Txitxarrak uda ederra pasa zuen, botata, gitarra jotzen eta abesten. Bitartean txingurri gaixoak, langile fina, negurako elikagaia pilatzen pasa zituen eguzkipean baliatu ez zituen egun guzti haien. Baina hotza iritsi zen, eta harekin elurra, eta egunean egunekoaz disfrutatzea erabaki zuen txitxarrak ez zuen ahora eramateko ezer, bere aukera bakarra txingurriari laguntza eskatzea bihurtu zelarik, udara osoa hari iseka eginez pasatu bazuen ere. Elezaharrak dio txitxarrak txingurriaren atea jo zuenean azken honek esan ziola: udara osoa abesten pasatu baduzu, orain dantzatu. Egia esan, nik ez dut buruan hain amaiera gogorra, baina bai lanaren garrantzia eta alferkeriaren ondorioen irakaspena. Txingurriak esfortzu handia egin zuen eta, trukean, zilegi zen saria jaso zuen. Txitxarrak, aldiz, kolperik jo ez izana ordaindu beharko zuen. Adierazgarria, oso, bi xomorro hauen istorioa.

Sekula puskatu duzue inurritegi bat? Kaosa izaten da. Bat-batean denak zoratuta bezala korrika hasten dira, alde batera, bestera, oso ondo jakin gabe nora jo behar duten, zer egin egoera konpontzeko. Batzuetan iruditzen zait zapaldutako inurritegi horietako baten parte naizela. Guztiak inguruan zoratuta, masterrak egiten, hizkuntzak ikasten, praktiketan lanean ezer gutxiren truke... Badakigulako, ipuinari esker, inurriak izango duela negu gogorrari aurre egitea, alferrak gosez hilko diren bitartean. Hala ere, batzuetan iruditzen zait txikitan ez zizkigutela guztioi ipuin berdinak kontatu. Egon behar du baten bat, niri sekula kontatu ez didatena eta pribilegiatu gutxi batzuk bakarrik izan dutena entzuteko aukera. Txitxarra eta txingurriaren jarraipen bat edo beste bertsioen bat. Bestela zaila da ulertzen.

Zaila da ulertzen bizitza osoan txingurriak bezala lan egiten pasa duten horiei zor zaien pentsiotik kentzea, lan egiteko irrikaz dagoen jendea etxerik gabe geratzea, master pila eta hizkuntza gehiago dituzten gazteak lana lortu ezinik ibiltzea... beste batzuk, txitxarrak, a relaxing cup of café con leche hartzen duten bitartean. Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta irten dadila in Plaza Mayor.